

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

ESKOLA ETA FAMILIA ARTEKO ELKARRIZKETETARAKO KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIEN INBENTARIOA

Egilea: Nerea Céspedes Fernández

Zuzendaria: Mikel Iruskietta Quintian

Leioan, 2018ko maiatzaren 29an

EGILEAREN ONIRITZIA

AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Marko teorikoa	5
1.1. Eskola eta familiaren arteko harremana	5
1.2. Guraso-irakasle elkarrizketak	6
1.2.1. Estilo komunikatiboak	7
1.2.2. Hizkuntza	8
1.2.3. Iraupena eta faseak	9
2. Metodologia	11
2.1. Ikasle-fitxak	11
2.2. Elkarrizketen grabaketak	12
2.3. Grabaketen transkribapena	13
2.4. Irakasle aditu eta ez-adituen elkarrizketen analisisa eta interpretazioa	16
2.5. Komunikazio-estrategia egokien inbentarioa	20
3. Emaitzen analisisa eta interpretazioa.....	21
3.1. Proposamena: komunikazio-estrategia egokien inbentarioa.....	27
4. Ondorioak.....	31
5. Erreferentzia bibliografikoak	33

ERANSKINAK (atxikitako dokumentuan)

1. ERANSKINA: Irakasle aditu eta guraso arteko 1go elkarrizketa.
2. ERANSKINA: Irakasle aditu eta guraso arteko 2. elkarrizketa.
3. ERANSKINA: Irakasle aditu eta guraso arteko 3. elkarrizketa.
4. ERANSKINA: Irakasle ez-aditu eta sasi-guraso arteko 1go elkarrizketa.
5. ERANSKINA: Irakasle ez-aditu eta sasi-guraso arteko 2. elkarrizketa.
6. ERANSKINA: Irakasle ez-aditu eta sasi-guraso arteko 3. elkarrizketa.
7. ERANSKINA: Ikasle-fitxak.

ESKOLA ETA FAMILIA ARTEKO ELKARRIZKETETARAKO KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIEN INBENTARIOA

Nerea Céspedes Fernández

UPV/EHU

Ikerketa-lan honen helburua, eskola-elkarrizketetarako komunikazio-estrategien inbentarioa sortzea da. Horretarako, metodo kuantitatiboa erabiliz eta familia eta irakasleen arteko elkarrizketa errealetan oinarrituta, elkarrizketa horietako ezaugarri desberdinak aztertu dira: estilo-komunikatiboa, hizkuntza eta faseak. Aztertutako elkarrizketak bi azpimultzotan sailkatzen dira: irakasle aditu eta gurasoen artekoak, eta irakasle ez-aditu eta sasi-gurasoen artekoak. Bi elkarrizketa mota horietan emandako ezaugarriak aztertu dira, bien arteko desberdintasuna antzemateko. Aspektu batzuetan, irakasle adituek, ez-adituek baino komunikazio-estrategia egokiagoak erabili dituzte. Dena den, oro har, bai aditu bai ez-adituek antzeko gaitasunak adierazi dituzte jasotako corpusetan. Lanean jasotako emaitzen aurrean, komunikazio-estrategia egokien inbentarioa sortu da.

Elkarrizketa, eskola, familia, komunikazio-estrategiak, inbentarioa

El objetivo de este trabajo es crear un inventario de estrategias de comunicación para entrevistas escolares. Para ello, a través del método cuantitativo, examinando entrevistas reales entre familias y docentes, se han analizado características diferentes que aparecen en ellas: estilo-comunicativo, lenguaje y fases. Las entrevistas analizadas se dividen en dos tipos: las realizadas entre profesores expertos y padres, y las realizadas entre profesores inexpertos y padres ficticios. Se han analizado las características de esos dos tipos de entrevista, con el fin de determinar si existe algún tipo de diferencia entre ambos. En algunos aspectos, los profesores expertos han demostrado utilizar mejores estrategias comunicativas que los inexpertos. Sin embargo, en general, en los corpus utilizados, profesores expertos e inexpertos han manifestado habilidades parecidas. Ante los resultados obtenidos en este trabajo, se ha creado un inventario de estrategias-comunicativas adecuadas.

Entrevista, escuela, familia, estrategias de comunicación, inventario

The aim of this research work is to create an inventory of communication strategies for school interviews. To do that, through the quantitative method and based on real interviews between families and teachers, different constraints have been analysed: communication style, language and interview-phases. The interviews analysed are divided into two types: those conducted between expert teachers and parents, and those conducted between inexperienced teachers and fictitious parents. The characteristics of these types of interviews have been analysed, in order to determine if there are differences among them. In some aspects, expert teachers have shown better strategies to communicate than inexperienced teachers. However, in general, in the corpus used, expert and inexperienced teachers have shown similar communication skills. Taking into account the results obtained in this work, an inventory of appropriate communication strategies has been created.

Interview, school, family, communication strategies, inventory

Sarrera

Haurrak testuinguru desberdinetan nola jokatzeko duten xehetasunez ezagutzeko, haurrarentzako hain hurbilak diren familiak eta eskolak harremana izatea baliagarria da. Are eta gehiago, umearen hezkuntza-prozesuan elkarlanean eraginkor aritzeko eta umearen ebaluazio jarraia egiteko, guraso-irakasle arteko elkarrizketa ezinbestekoa da. Egoera desberdinen aurrean, elkarrizketek helburu desberdinak izan ditzakete, dena den, badago elkarrizketa guztiek bete beharreko helburu orokorra: ikasleen hezkuntza-prozesua egoki bideratzeko guraso eta irakasleek (batak besteari) informazioa eskaintzea eta eman daitezkeen arazoei aurre egiteko konponbideak edo erabakiak zehaztea. Elkarrizketak, beraz, garrantzia handikoak dira; bertan, irakasleek familiekin harremana garatzen baitute.

Esan bezala, irakasleek familiekin izaten dituzten elkarrizketak, bien arteko harreman horren agerizko baldintzatzailea da, baita haurren garapenaren baldintzatzaile garrantzitsuenetako bat. Gauzak horrela, irakasleentzat, elkarrizketak nola garatu eta hobetu jakiteko proposamenak behar dira. Izan ere, euskaraz ez dago irakasleei familiekin nola jokatu zehazten edo azaltzen dien inbentario edo bibliografia nahikorik. Hortaz, eskola eta familien arteko komunikazioa aztertzea interesgarria eta garrantzizkoa da, eta lan honen helburua, hain zuzen ere, irakasleek elkarrizketak burutzerako orduan jarraitzeko gidoia sortzea da.

Egun, familia eta eskolaren arteko komunikazioa araututa dago; hala ere, ezin daiteke edonola burutu edo arauak dionera mugatu, gurasoekiko elkarrizketak haurraren garapenerako erabili nahi baditugu. Komunikazio egokirako irizpideak ezagutzea ezinbestekoa da, komunikazio eraginkorrean, irakasleen eta gurasoen arteko gaizki-ulertuak ekidin eta egoera desberdinen aurrean nola jokatu ezagut dezagun. Hartara, lan honen helburu nagusia betetzeko, irakasle aditu eta ez-adituek familiekin burututako elkarrizketa-corpusak konparatuko ditugu eta aztertutako ereduetatik, ohikoak diren komunikazio-estrategiak antzeman, komunikazio-estrategia egokien inbentarioa sortu eta hobetzeko proposamenak zehaztuko dira (irakasle aditu eta ez-adituen arteko diferentzia nabarmena ematea espero da). Aztergaiak deskribatzeko, metodo kuantitatiboan oinarritutako ikerketa-lana burutuko da, nahiz eta erabili dugun corpusa txikia izan.

Oro har, ikerketa-lana behin eginda, irakasle aditu eta ez-adituek hainbat aspektutan antzeko joerak dituztela esan dezakegu, nahiz eta irakasle adituek, aspektu batzuetan, estrategia egokiagoak erabili.

Azkenik, lan hau egitean izandako mugak aipatzekoak dira. Alde batetik, corpusak lortzeko zailtasunak eman dira, corpusak grabatzeko guraso gutxik eman baitute baimena. Horregatik, beranduago azalduko den bezala, ikerketa-lan honetan, zentro berean irakasle eta guraso diren profesionalen parte-hartzea eman da. Zentroak, izaera euskalduna du eta bertan, bizkaierako euskalkian irakasten eta lan egiten da.¹ Beste alde batetik, corpus gehiago lortze eta konparatze aldera, Haur Hezkuntza Graduak laugarren mailako zenbait ikaslek, irakasle rola hartuta elkarrizketa desberdinak burutu dituzte.

1. Marko teorikoa

1.1. Eskola eta familiaren arteko harremana

XX. mendearen hasieran, gurasoek ez zuten inolako inplikaziorik eskolan, ezta bertan haien seme-alabek jasotzen zuten irakaskuntzaz ezer erabakitzerik; irakasleen lanak, irakasgaien irakaskuntzan eta metodoetan oinarritzen zenak, ez zuten gurasoek hartutako erabakiekin zerikusirik (Domínguez, 2010). Beraz, haurrari zegozkien erantzukizunak banaturik zeuden, batetik gurasoen erantzukizunak, bestetik eskolarenak. Eskolak eta familiak elkarren beharra izan arren, biek haien arteko distantziak ezarri ohi izan dituzte denbora luzez; edonola ere, hainbat aldaketa sozial eta kultural direla medio, elkarren arteko harremana hobetu da. Izan ere, Domínguezek (2010) dioten bezala, azken urteotan, familiak eta eskolak erantzukizun desberdinak izatearen ikusmoldea desagertuz joan da, ardura partekatuen ideia dela eta.

Cabrera (2009) zehazten du, haurren bizitzako lehen urteetan, familia, eragile sozializatzaile nagusia dela, eskolako ingurugiroagatik jarraituta, azken honek ere, haurren garapenean eta heziketa-prozesuan eragin nabarmena baitu. Hori guztia kontuan hartuta, haurraren garapenean eragina duten instantzien artean, familia eta eskolaren artean, harreman eta komunikazio estua bermatu behar da, haurraren ikuspegi oso eta globalizatua lortzeko eta elkarbanatzeko asmotan.

¹ Zentroaren izena ez da aipatuko, ikastetxeak espresuki eskatuta.

Horren harira, García-Bacetek (2003), gurasoak eta eskola elkarlanean aritzen direnean, ikasleek onura ugari jasotzen dituztela adierazten du: eskolan emaitza hobekak izatea, eskolako zereginetik jarrera positiboa hartzea, autoestimu handiagoa lortzea eta ikasgelan duten parte-hartzea areagotzea, besteak beste. Bolívarren (2006) arabera ere, eskolak eta familiek era bateratuan lan egiten dutenean, umeen etekin akademikoak areagotu egiten da, eta zentroaren heziketa kalitatea ere hobetu egiten da. González-Pienda eta Núñez (2005) bat datoz baieztapen horrekin; izan ere, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari dagozkion hainbat ikerketek erakutsi dute lotura estua dagoela familiak eskolan duen inplikazioaren eta arrakasta akademikoaren artean.

Cabreraren (2009) ustez, ezinbestekoa da haurraren ingurugiro gertuenetako parte-hartzaileek era koordinatuan aritzea; izan ere, familia-eskola arteko harremana egokia bada, haien arteko konfiantza areagotuko da eta komunikazioa benetan eraginkorra bihurtuko da, zalantzak, nahiak, kezkek, haurraren eboluzioa eta beste hainbat gai elkarbanatuz.

1.2. Guraso-irakasle elkarrizketak

Elkarrizketa hitzak, aplikatzen eta erabiltzen den esparruaren arabera, zentzu desberdina izan ditzake; hots, elkarrizketa mota desberdinak daude. Abadalejoren (2010) hitzetan, informazioa eskuratzeko eta hezkuntza-helburuak betetzeko asmoarekin, hezkuntzako profesionala beste pertsona bat edo gehiagorekin biltzeari esaten zaio hezkuntza-elkarrizketa.

Hezkuntza-elkarrizketa komunikaziorako abagune bikaina da (Tabera, 2005), aldi berean, prestaketa, burutze fase, eta horren ondoren bertan aritutakoaz informazioa jasotzeko, lan handia eskatzen badu ere (Intxausti, 2014). Elkarrizketaren potentzialtasunari etekin ahalik eta handiena ateratzeko, planifikazioa eta zenbait antolatze-baldintza ezinbestekoak dira, baita egindako jardunaren hausnarketa eta autoebaluazioa.

Horren harira, guraso-irakasle elkarrizketak, ardura bera beharko luketen pertsonen artean egindako batzarrak dira, aldez aurretik prestatutakoak eta izaera hurbilekoak (Trillo, 1999). Gainera, García-Bacetek (2007) zehazten duenagatik, kasuaren arabera, elkarrizketek hainbat helburu desberdin izan ditzakete; edonola ere, elkarrizketa orok helburu orokor bera dute, guraso eta irakasleek ikasleen hezkuntza era egokian

bideratzeko informazioa elkartrukatzea eta horretan laguntzeko konponbideak proposatzea eta erabakiak hartzea.

1.2.1. Estilo komunikatiboak

Elkarrizketak burutzerako orduan, bai guraso bai irakasleek adierazten duten jarreraren arabera, komunikazio-estilo desberdinak azalera daitezke: asertiboa edo ez-assertiboa. Elkarrizketako parte-hartzaileen nortasunaren arabera den komunikatzeko estiloak, elkarrizketaren garapenean eragina du (Intxausti, 2014). Díezek eta Terronek (2006), elkarrizketetan eman daitezkeen estiloak hirutan sailkatzen dituzte: i) estilo asertiboa, ii) estilo agresiboa eta iii) estilo inhibitzailea. Azken bi horiek estilo ez-assertiboak bezala uler daitezke. Díezen eta Terronen (2006) esanetan, estilo agresibo eta inhibitzailea ez dira komunikazio-estrategiak era egokian burutzen; izan ere, estilo agresiboan jarrera erasokortzat hartzen da, eta inhibitzailean ez da arazoa konpontzearen aldeko interesa adierazten. Era horretara, elkarrizketako parte-hartzaileen arteko komunikazioa kaltetu egiten da. Elkarrizketetan gaitasun komunikatibo egokiak garatuz, ordea, irakasle-guraso arteko komunikazioa eta zehaztutako helburuak betetzea errazten da, komunikazio-estilo asertiboa erabiliz.

Asertibitatea, Abadalejoren (2010) arabera, ondorengo hastapenetan oinarritzen da: norbere burua eta gainerakoak errespetatzea, zintzoa izatea, arazoak era zuzenean komunikatzea, entzuten jakitea, norbere emozioak kontrolatzen jakitea, enpatia adieraztea eta ezezko erantzunak ematen jakitea. Irakasleak printzipio hauek era egokian aurrera eramateko, ezinbestekoak ditu gaitasun komunikatibo eta emozionalak. Edonola ere, Intxaustik (2014) zehazten duen moduan, nahiz eta esperientzia handiko irakasle batek gaitasun komunikatiboak menperatu, elkarrizketetan suerta daitezkeen bat-bateko egoeren aurrean, baliteke asertibotasunez jokatzeko gai ez izatea.

Arestian aipatutako komunikazio-estilo ez-assertiboak, Díezek eta Terronek (2006) agresibo eta inhibitzaile bezala zehazten dituztenak, gurasoek har dezaketen jarrera aintzat hartuta, xehetasun gehiagoz sailkatzen ditu Viñak (1999): gurasoek era agresiboan jokatzeko, euren buruari errua botatzea, arazoaren aurrean sentitutako ezintasunagatik ihes egitea edota arazoa ukatzea. Tutoreek ezagutu eta identifikatu behar dituzte gurasoek har dezaketen lau jarrera mota hauek (jarrera agresiboa, euren buruari errua botatzea, ihes egitea eta arazoa ukatzea), baita eurentariko bakoitza emateko kasuetan nola jokatu behar duten ere.

1.2.2. Hizkuntza

Hasieratik, irakasleak familiak aukeratutako hizkuntza erabili behar du elkarrizketa garatzerako orduan (Abadalejo, 2010). Elkarrizketa zein hizkuntzatan garatuko den behin zehaztuta, badira hizkuntza horrekiko irakasleak kontuan hartu beharreko hainbat aspektu: erregistroa, ahoskera eta hizkuntza-funtzioak (Iruskieta, 2015).

1.2.2.1. Erregistroa: euskalkia eta formaltasuna

Euskara hizkuntzatzat ulertzen dugu, baina “dialektoez” ari garenean, hizkuntzaren aldaerez ari gara (Michelena, 1981). Euskararen kasuan, dialektoak, euskalkiak bezala ezagutzen ditugu.

Aspalditik, Euskal Herriko eremua bost zatitan sailkatu daiteke euskalkiaren arabera (Zuazo, 1998). Hizkera-aniztasun horren aurrean, 60ko hamarkadaren bukaeran, euskara batua edo estandarra, hizkuntza literario gisa proposatu zen, Díazek (2002) dioenaren arabera. Horren harira, euskararen kasuan, hizkuntza literarioaz ari garenean, hizkuntza idatziaz eta hizkuntza jasoaz ere ari gara. Hortaz, euskara batua hizkuntzaren eremu horietarako proposatu zen, nahiz eta beranduago, komunikabideek euskal gizartean eragin nabarmena izan duten, euskara batuan egindako lanagatik (Díaz, 2002).

Elkarrizketak burutzerako orduan, euskalkiaz gain, tonua ere kontuan hartu beharrekoa da, tonua nolakoa den arabera, irakasleek familiekiko gertutasuna edo distantzia adierazten baitute (Abadalejo, 2010). Tonua ofiziala eta formaltasun ertainekoa izan behar da, adeitsua baina ez lagunartekoa; horretarako, irribarrea baliabide paregabea da. Tonu ofizialaren erabileraren inguruan, Abadalejoren (2010) arabera, irakasleak eskolaren izenean hitz egin behar du, bere argumentuetan eskola eta bertako irakasleak kritikatu gabe.

Abadalejok (2010) esaten duen moduan, garrantzitsua da elkarrizketa osoan zehar irakaslea gurasoekiko gertutasunez adieraztea, amultsutasunez jokatzeko eta gurasoek iraganean izandako jarreraren inguruko epairik edo iritzirik ez ematea; era horretara, tutoreak konfiantza transmititzen dio familiari, baita konfidentzialtasuna bermatu ere.

Aipatutakoaren inguruan, Abadalejok (2010), elkarrizketa hasieran erregistro formala erabili behar dela dio, beranduago, familiak erabiltzen duen erregistroa antzemanda, horretara hurbiltzen edo egokitzen saiatuz.

Erabilitako hizkuntzaren arabera, formaltasuna zehazten duten aldagaiak desberdinak izan daitezke, euskararen kasuan, elkarrizketak euskaraz burutzean erdarazko hitzak edota esaldiak erabiltzea, euskara ez formaltzat uler daiteke (Iruskieta 2015).

1.2.2.2. Ahoskera

Ahoskeran arreta jarritz, Euskaltzaindiak (1998) diona jarraituz, Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua (EBAZ) erabili behar da hizkuntzaren maila formaletan. Hortaz, arestian azaldu den bezala, hezkuntza-elkarrizketak formaltasun estandarrean burutu behar direnez, EBAZ nola erabili ezagutzea beharrezkoa da. Euskara Batuaren ahoskera zaindua, berez, euskaldun guztientzat sortutako ahozko hizkuntza estandarra da. Ahoskerari dagozkion arau desberdinak zehazten baditu ere, Euskara Batuaren ahoskera zaindua ez da ahoskatzeko era bakarra.

1.2.2.3. Hizkuntza-funtzioak

Guraso-irakasle elkarrizketak era eraginkorrean burutzeko, Iruskietaren (2015) hitzetan, hizkuntza-funtzio desberdinak kontuan hartzea komeni da: birformulazioak eta kontzesioak.

Zelaietak (2016), birformulazioak informazio bera era desberdinean transmititzeko estrategia bezala definitzen ditu. Horren harira, Iruskietak (2015), estrategia hau irakasleek gurasoekiko entzuketa aktiboa eta enpatia adierazteko aproposa dela dio. Arazoen aurrean, arazo horiek komunikatzeko datu objektiboetan oinarritu beharra dago (Iruskieta, 2015); hala ere, badago komunikazio horretan lagun dezakeen estrategia: kontzesioa. Kontzesioa, arazo bat komunikatzerako orduan, ahalik eta gatazka txikiena sortzeko estrategia gisa definitzen du Iruskietak (2015); nolabait, hizlariak proposatzen duen negoziazioa da, hasieran zerbait onartuz, eta ondoren, eragozpenen bat jarritz.

Aipatutako hizkuntza-funtzio horiez gain, Iruskietaren (2015) arabera, gurasoek azaldutakoaren laburpen txikiak, irakaslearen aldetik entzuketa aktiboa ematen ari dela bermatzeko tresna dira, baita gurasoengandik jasotako mezua era egokian ulertu dela ziurtatzeko eta komunikazioa arrakastatsua izan dela ziurtatzeko era.

1.2.3. Iraupena eta faseak

Jakina da, elkarrizketak burutzeari denbora eskaini behar zaiola, ez soilik elkarrizketa aurrera erodateko momentuari, baizik eta aurretiaz egindako prestaketari eta ondoren datuak jasotzeari ere (Intxausti, 2014). Aipatutako hiru fase horiek desberdinak izaten

dira kasuaren arabera, hortaz, kasu bakoitzera egokituz, fase bakoitzari beharrezko denbora eskainiko zaio; hirurak burutu beharreko faseak dira (elkarrizketaren prestaketa, elkarrizketa aurrera eramatea eta elkarrizketan jasotakoa biltzea), nahiz eta egoeraren arabera, beti denbora berdina ez eskaini bakoitzari. Abadalejo (2010) ideia horrekin bat dator, elkarrizketa aurrera eramateko faseari dagokionez, ez dago erabat egokia den iraupenik; hala ere, elkarrizketak ordu laurden bat eta bi ordu bitartean iraun behar duela zehazten du. Izan ere, ordu laurden baino gutxiagoko tartean, ezin daiteke beharrezkoa den informazio guztia trukatu, eta bi ordu baino gehiagoko elkarrizketetan aldiz, momenturako konponbide egokiak zehaztu ez badira, parte-hartzaileen argumentuak eta elkarrizketako gaiak errepikakorrak bihurtzeko joera dute.

Elkarrizketa burutzerako orduan, iraupena ez bezala, jarraitu beharreko faseak zehaztu daitezke. Abadalejoren (2010) esanetan, irakasleek faseak ondo identifikatu behar dituzte, baita batetik bestera nola igaro jakin ere; horri jarraiki, autore honek 5 fase zehazten ditu, elkarrizketa guztietan aurrera eraman behar direnak: i) harrera, ii) entzute aktiboa eta ikertzea, iii) jarraitu beharreko estrategien diseinua, iv) akordioak eta konpromisoak eta v) agurra.

i) Harrera: irakasleek interesa, errespetua eta erdi-mailako formaltasunezko agurra adierazten dute, ahoz zein gorputz-hizkuntzaren bidez.

ii) Entzute aktiboa eta ikertzea: maisu-maistrek galderak egiten dituzte egoeraren inguruko informazioa lortzeko. Horrez gain, familiak azaldutakoaren birformulazio eta laburpenak egiten dituzte irakasleek, familiak transmititutako mezua jaso eta ondo ulertu dutela azalaraziz.

iii) Jarraitu beharreko estrategien diseinua: hiru azpi-fase eramaten dira aurrera: elkarrizketaren helburua azaltzea, beharrezko informazioa azaltzea eta kasurako egokiak diren konponbideak eta ekintza-proposamenak topatzea.

iv) Akordio eta konpromisoak: gurasoen konpromisoa bilatu, irakasle eta ikastetxearen konpromisoa adierazi eta azken laburpena egiten du irakasleak.

v) Agurra: elkarrizketa amaitu dela jakinarazi, gurasoen zalantzak argitu direla ziurtatu eta etorkizuneko elkarrizketetarako aukera eskaintzen du irakasleak.

2. Metodologia

Aipatu dugunez, gradu amaierako lan honen helburua da komunikazio-estrategia egokiak zehaztea, irakasle adituek eta irakasle ez-adituek familiekin erabiltzen duten komunikazio egoera errealean. Hori egiteko, honako metodologia jarraituko da:

Lehenik, irakasleen eta gurasoen arteko batzarrak analizatuko dira. Ondoren, Haur Hezkuntza Graduko ikasle eta sasi-gurasoen arteko batzarrak. Horren ostean, elkarrizketa horietan eman beharreko baldintzak, erabili beharreko hizkuntza eta jokabideak, eta hobetu beharrekoak (horrelakorik balego), proposatuko dira. Metodo hori betetzeko, hainbat fase burutu eta tresna desberdin erabiliko dira:

- i) **Ikasle-fitxak:** irakasle adituek ikasle-fitxak sortuko dituzte gurasoekin burutuko dituzten elkarrizketarako oinarri gisa, ondoren, irakasle ez-adituek ere, fitxa horien erabilpena egingo dute.
- ii) **Grabaketak:** sei elkarrizketa desberdinen grabaketa egingo da. Irakasle aditu eta gurasoen arteko hiru elkarrizketa grabatuko dira alde batetik, eta bestetik, irakasle ez-aditu eta guraso rola hartuko duen aktore baten arteko beste hiru elkarrizketa.
- iii) **Transkribapena:** elkarrizketa horien guztien transkripzioa egingo da.
- iv) **Analisia:** irakasle aditu eta ez-adituek burututako elkarrizketen transkribapenak analizatuko dira, zein berdintasun eta desberdintasun dituzten zehaztuz (ezaugarri zehatz batzuetatik abiatuz konparaketa).
- v) **Inbentarioa:** aurreko fasean ateratako datuetan oinarrituta, guraso-irakasle arteko elkarrizketak egiteko komunikazio-estrategia egokiak bilduko dituen inbentarioa proposatuko da.

2.1. Ikasle-fitxak

Lehenik eta behin, irakasle adituek, gurasoekin burutuko dituzten batzarretan gidoi gisa erabiliko dituzten ikasle-fitxak beteko dituzte. Bertan, ikaslearen gaitasun eta jarrera desberdinak zeintzuk diren zehazten dira, nota orokor batekin baloratuz eta zenbait kasutan (beharrezkoa denean), zenbait ohar adieraziz. Irakasle adituek ez ezik, beranduago, irakasle ez-adituek ere, ikasle-fitxak hartuko dituzte oinarritzat sasi-gurasoekin elkarrizketa izaterako orduan. Irakasle ez-adituak testuinguruan jartzeko, irakasle adituek izandako elkarrizketetatik abiatuta, ikasle-fitxa berri bat sortuko da haur bakoitzeko (aurretiaz irakasle adituek betetako fitxak eskuragarri ez izateagatik). Era

honetara, irakasle ez-aditu bakoitzak, elkarrizketan aipatu beharreko umearen hainbat ezaugarri eta deskripzioen berri izango du. Horietatik abiatuta, irakasle ez-adituek, nirekin batera (guraso rolean) elkarrizketa burutuko dute.

Jarraian, sortutako ikasle-fitxa baten zati bat ageri da, adibide gisa (ikus 1. irudia). Bertan, ikastetxeak ikasle-fitxak betetzeko duen txantiloia eta ikasleen gaitasunak ebaluatzeko parametroetako batzuk ikus daitezke, baita irakaslearen zenbait balorazio eta ohar ere. Ikasle-fitxa guztiak, osorik, 7. eranskinean bilduko dira.

(H3)

AUTONOMIA ETA GELAKO DINAMIKA		
Pozik dator ikastolara.	O.O	Orokorrean oso ondo moldatzen da. <u>Nabarmendu beharrekoak:</u> <ul style="list-style-type: none"> - *Asko hitz egiten du. Oso espontaneooa denez, bera hitz egiten egotea nahi du momentu oro. Adibidez, besteek hitz egitean, bera bere iritzia eman edo bere esperientzia kontatu behar du. Ez da aspektu negatiboa, baina kostatu egiten zaio txandak errespetatzea. - Makinista denean, andereño rola erabat betetzen du: besteei isiltzeko, ondo jesartzeko etab. eskatzen die. Asko gustatzen zaio. - **Orokorrean autonomia maila egokia dauka. - ***Txandak ez ditu errespetatzen (besteen txandan ere hitz egiten du).
Gelan disfrutatzen dau.	O.O	
Dinamikan parte hartzen dau.	O.O*	
Korroan adi dago.	O.O	
Bere arrokekin ondo moldatzen da.	O.O**	
Komunean bakarrik moldatzen da.	O.O**	
Gelako espazioetan autonomia da.	O.O**	
Jantokia.	O.O	
Batzen dau.	O.O	
Arauk errespetatzen dauz.	O.O***	

HARREMANAK		
Irakasleekaz harreman zabala dauka.	O.O	Orokorrean ondo moldatzen da: <ul style="list-style-type: none"> - Neskekin jolasten du, mutilekin ez. - (H3K1)(r)ekin (bere lagun minarekin) egoten da gehienetan. - Taldean, kideekin ondo moldatzen da. - Laguntzeko prest dago, gainerakoeikiko enpatia erakusten du. - Batzuetan "txibatu" egiten da (5 urteko ume gehienak bezala). - (H3K2)(r)ekin ez elkartzeko, zenbat eta gehiago esan gehiago egiten du. (H3)(e)k, beragana hurbiltzen dena (H3K2) dela esaten du.
Lagunekaz harremantzen da.	O.O	
Egoki jolasten dau.	O.O	

1. irudia. Sortutako ikasle-fitxen adibidea.

Aurreko batzarreko akordio plangintza

Gurasoen kezak

Ezagutza anizkoitzak

- Bisual-Espaziala
- Logiko-Matematikoa
- Berba-Linguintikoa
- Interpersonala
- Intrapersonala
- Zinestesikoa
- Naturalista
- Musikala
- Espirituala

Batzar honetako akordio plangintza

2.2. Elkarrizketen grabaketak

Esan bezala, familia eta maisu-maistren arteko elkarrizketak beranduago xehetasunez aztertu ahal izateko, batzar horien grabazioa burutuko da. Grabazio horiek bi motatakoak izango dira; izan ere, irakasle aditu eta irakasle ez-adituen jokaera analizatu nahi da.

Alde batetik, zentro batean irakasle diren hezitzaile eta gurasoen arteko hiru elkarrizketa grabatuko dira, hots, irakasle-adituek (kasu honetan, hiru emakumezko) familiekin burutzen dituzten elkarrizketen komunikazio-estrategiak bilduko dira audio formatuan.

Kasu honetan, hezitzaileetako bik hamar urte baino gehiagoko esperientzia dute, hirugarrenak aldiz, bi urteko esperientzia baino ez du. Aipatzekoa da, elkarrizketetako bi lan honetarako ikergaia sortzeko helburuarekin egin direla, aurretiaz adostuta ez zeudela. Horren harira, esan beharra dago, elkarrizketetan parte-hartuko duten gurasoak, zentro bereko irakasleak direla ere.

Beste alde batetik, Haur Hezkuntza Graduko laugarren mailako ikasle diren kide desberdinen arteko beste hiru antzeztutako elkarrizketa grabatuko dira (ikasle batzuk hezitzaile papera hartuz, eta nik neuk, gurasoaren rola hartuz).

Irakasle adituen kasuan, elkarrizketa errealak izango dira. Irakasle ez-adituen kasuan aldiz, adituek elkarrizketatutako testuinguru berdinak hartu eta egoera horiek nola komunikatuko lituzketen jasoko da. Era horretara, beranduago aditu eta ez-adituen arteko konparaketa egiteko aukera egongo da.

Irakasle ez-adituek, baldintza bi baino ez dituzte izango elkarrizketak burutzerako orduan: i) haur bakoitzaren fitxan jasotako parametro desberdinei buruz jardutea eta ii) abiapuntutzat hartu den irakasle adituak egindako elkarrizketaren antzeko iraupena izatea. Izan ere, irakasle ez-adituari, ez zaio erabili beharreko erregistroaren eta formaltasunaren inguruko argibiderik emango, berez zein erabiltzen duten aztertzeo asmotan. Hau guztiaz gain, hizketaldian zehar gurasoak egindako galderengatik espero ez diren sortutako gaien aurrean, bat-batekotasunez jokatu beharko du irakasle ez-adituak.

Sasi-gurasoak irakasle adituek egindako jatorrizko elkarrizketetan oinarrituta, grabaketa bakoitzean, gurasoak izandako jarrera bera hartuko du, konparagarritasunaren hobe beharrez.

2.3. Grabaketen transkribapena

Sei elkarrizketen transkribapena egingo da hitzez hitz grabazioak entzunda, elkarrizketa-corpusak sortuz. Elkarrizketen transkribapenek, erabiltzen diren komunikazio-estrategiak era sakonago batean aztertzea erraztu eta ahalbidetuko dute, baita ikergaia garatzeko ebidentziak lortu ere.

Lehenik eta behin, transkribapenak egiterako orduan, grabazioez gain, beste hainbat aztergai bilduko dira (ikus 2. irudia): data, elkarrizketaren iraupena, hura burutzeko arrazoia, parte-hartzaileak eta azkenik, elkarrizketan parte-hartzaileek hartuko duten

kokapena (elkarrizketa burutzerako orduan partaide bakoitza non jesarriko den). Era honetara, transkripzioak egin baino lehen, elkarrizketen testuingurua zehaztuko da.

1go elkarrizketa:


Data: 2018/03/19

Iraupena: 18:05

Elkarrizketa egiteko arrazoia: Ikerketa-lan honetarako ikergaia sortzea, eta bide batez, 4 urteko haurren bigarren hiruhilabeteko ebaluazioa egitea.

Parte-hartzaileak: Tutorea **(T1)** eta ama **(G1)**.

Elkarrizketaren kokapena:



2. irudia. Elkarrizketen testuinguru-azterketaren adibidea.

Behin elkarrizketen testuingurua zehaztuta, audioen transkribapena xehetasunez egiteko, Bilbatuak (2010) zehaztutako irizpideak erabiliko dira oro har, zenbait moldaketa egin badira ere. Erabiliko diren irizpideak ondorengoak dira:

- ❖ Elkarrizketetako parte-hartzaileen txanda bakoitza, esaldi hasieran zenbaki baten bitartez adieraziko da.
- ❖ Harridura eta galdera ikurrak erabiliko dira.
- ❖ Audioetan esandakoa ulertzeko zailtasunik dagoenean, XXXX bitartez adieraziko da.
- ❖ Parte-hartzaileek burututako keinu eta hotsak kako artean adieraziko dira.

Bestalde, Bilbatuaren (2010) irizpideez gain, beste zenbait zehaztu dira transkribapena aurrera eramaterako orduan:

- ❖ Hizlari bakoitzaren euskalkia mantenduko da.
- ❖ Partaide batek beste norbaiten hitzak aipatzerakoan, “ ” artean adieraziko da.
- ❖ Elkarrizketako parte-hartzaileen anonimotasuna mantentzeko, pertsona bakoitzaren izena sigla desberdinengatik ordezkatu da.
- ❖ Amaitu gabeko esaldiak edota etenaldiak, esaldi bukaeran hiru puntuak erabiliz adieraziko dira, honela: ...

Sei transkribapenak eranskinen atalean jasoko dira, 1go eranskinetik 6. eranskinera arte, edonola ere, hona hemen corpusetako batetik ateratako pasarte adibide gisa, non aipatutako irizpide guztiak biltzen diren:

104 (G3): Berak ya pentsatu dau: “Es que etorriko da (H3K1) gure etxera bizitzera”. Digo: “Igual hitz egin behar dozu (H3K1)(e)gaz”. “Ah! Baina bera etorriko da”. Y yo: “Bale, XXXX”.

105 (T3): Hala ere, talde baten egoten danean eta ondo moldatzen da besteekaz, eh?

106 (G3): A ver, nik ikusten dot (H3) asko zabaldu dala, osea... Txikitan, ez zan holakoa, osea baina... Baina ikasten joan da. Eta orain, paskualekuetan egon da...

107 (T3): (Baiezkoa emanez, ahoarekin zarata egin).

Azaldu den legez eta erantsitako adibidean ikus daitekeen bezala, elkarrizketetako parte-hartzaileen anonimotasuna mantenduko da. Horretarako, bai elkarrizketetako partaideen izenak, bai elkarrizketetan aipatzen diren pertsonen izenak (haurren izenak, ikaskideen izenak etab.), patroia bat jarraituz zehaztutako siglengatik ordezkatu dira (ikus 1. eta 2. taulak). Era honetara, esaterako, irakasle adituen kasuan, tutore guztiak “T” hizkiak identifikatu dira, nahiz eta bakoitzak ondoren zenbaki desberdina izan (elkarrizketaren zenbakiaren arabera). Gauza bera egingo da partaide edo aipatutako pertsona guztiekin. Irakasle ez-adituen elkarrizketen kasuan, identifikadore gehienak mantendu egingo dira, 2. taulan zehaztutakoak izan ezik, irakasle ez-adituenak eta sasi-gurasoenak hain zuzen ere (horiek baitira irakasle adituen elkarrizketatik ez-adituen elkarrizketetara aldatuko diren partaide bakarrak). Edonola ere, 2. taulan irakasle ez-adituentzako zehaztutako siglek ere, antzeko patroia jarraituko dute. Tutoreak “T1”, “T2” eta “T3” siglekin identifikatu beharrean, “T1EA1”, “T2EA2” eta “T3EA3” siglekin identifikatu dira, gehitutako “EA” hizkiek “ez-aditu” hitzari erreferentzia egiten diotelarik eta zenbakiak eredu izandako adituen elkarrizketari erreferentzia egiten diotelarik. Sasi-gurasoen anonimazioa burutzeko, gauza bera egingo da, baina oraingo honetan, zenbakia aldatu gabe (sasi-gurasoa berdina izango baita ez-adituen elkarrizketa guztietan).

IRAKASLEAK	4 urteko gelako tutorea (T1) 5 urteko gelako tutorea (T2) 5 urteko gelako tutorea (T3) Musikako irakaslea (MI) Psikomotrizitateko irakaslea (PI) Hezkuntza ez-formaleko musikako irakaslea (HEMI)
FAMILIA	4 urteko haurraren ama (G1) 4 urteko haurraren arreba (A1) 5 urteko haurraren ama (G2) 5 urteko haurraren ama (G3) 5 urteko haurraren aita (G4)
ELKARRIZKETETAKO PROTAGONISTAK	1go elkarrizketako protagonista den 4 urteko haurra (mutila) (H1) 2. elkarrizketako protagonista den 5 urteko haurra (mutila) (H2) 3. elkarrizketako protagonista den 5 urteko haurra (neska) (H3)
LEHENENGO ELKARRIZKETAKO PROTAGONISTAREN IKASKIDEAK	4 urteko haurraren ikaskidea (mutila) (H1K1) 4 urteko haurraren ikaskidea (mutila) (H1K2) 4 urteko haurraren ikaskidea (mutila) (H1K3) 4 urteko haurraren ikaskidea (mutila) (H1K4) 4 urteko haurraren ikaskidea (neska) (H1K5) 4 urteko haurraren ikaskidea (neska) (H1K6) 4 urteko haurraren ikaskidea (neska) (H1K7)
BIGARREN ELKARRIZKETAKO PROTAGONISTAREN IKASKIDEAK	5 urteko haurraren ikaskidea (mutila) (H2K1) 5 urteko haurraren ikaskidea (mutila) (H2K2) 5 urteko haurraren ikaskidea (mutila) (H2K3) 5 urteko haurraren ikaskidea (mutila) (H2K4)
HIRUGARREN ELKARRIZKETAKO PROTAGONISTAREN IKASKIDEAK	5 urteko haurraren ikaskidea (neska) (H3K1) 5 urteko haurraren ikaskidea (mutila) (H3K2) 5 urteko haurraren ikaskidea (mutila) (H3K3)

1. taula. Irakasle aditu eta gurasoen arteko elkarrizketetarako anonimizazioa.

IRAKASLEAK	4 urteko gelako tutorea (T1EA1) 5 urteko gelako tutorea (T2EA2) 5 urteko gelako tutorea (T3EA3)
FAMILIA	4 urteko haurraren ama (G1EA0) 5 urteko haurraren ama (G2EA0) 5 urteko haurraren ama (G3EA0)

2. taula. Irakasle ez-aditu eta sasi-gurasoen arteko elkarrizketetarako anonimizazioa.

2.4. Irakasle aditu eta ez-adituen elkarrizketen analisisa eta interpretazioa

Behin irakasle aditu zein ez-adituen elkarrizketak grabatuta eta transkribatuta, euren analisisa eta interpretazioa egingo da. Horretarako, hainbat kontzeptu hartuko dira kontuan, aldagai desberdinen arabera, bi elkarrizketa motetan ematen diren joera desberdinak aztertzeko, baita euretariko bakoitzean ematen diren ahulgune eta indarguneak zehazteko ere. Kontaketa eta azterketak, jasotako transkribapenetan eskuz egingo dira. Analisisa egiteko, 3. taula erabiliko da:

		Adituak			Ez-adituak		
		Elkarrizketa1	Elkarrizketa2	Elkarrizketa3	Elkarrizketa4	Elkarrizketa5	Elkarrizketa6
1.2.1. Estilo komunikatiboa	Interesa adierazteko galderak						
	Birformulazioak						
	Laburpenak						
	Ezezko erantzunak						
1.2.2.1. Euskalkia	Aditzak						
	Deklinatutako hitzak						
	Hiztegia						
	Aldagai guztiak kontuan hartuta						
1.2.2.1. Formaltasuna	Hasierako agurrak						
	Bukaerako agurrak						
	Ofizialtasuna						
1.2.2.3. Hizkuntza-funtzioak	Epaiak						
	Birformulazioak						
1.2.3. Iraupena	Kontzesioak						
	Laburpenak						
1.2.3. Faseak	Fase1						
	Fase2						
	Fase3						
	Fase4						
	Fase5						

3. taula. Irakasle aditu eta ez-adituen elkarrizketetako aztergaiak.

2.4.1. Estilo komunikatiboa

Atal honetan, hezitzaile bakoitzak egindako elkarrizketan duen komunikazio estiloa aztertu nahi da, asertiboa edo ez-asertiboa den zehazteko asmoz. Horren harira, guztiek estilo bera jarraitzeko kasua eman arren, elkarrizketa bakoitzean estilo hori zein neurritan eta nola ematen den ikusi nahi da. Horretarako, aztergai desberdinak erabiliko dira, elkarrizketetan duten presentziaren maiztasuna aintzat hartuz: interesa adierazteko galderak, ezezko erantzunak eta zenbait hizkuntza-funtzio. Irakasleak galderen bitartez interesa adierazteko adibidea ondorengoa litzake:

1 (T1EA1): Egun on, (G1EA0)! Zelan?

2 (G1EA0): Kaixo (T1EA1)! Egun on! Ondo... A ver zer kontatzen dozun...

3 (T1EA1): Zelan... Eh, Bilbon bizi zara?

4 (G1EA0): Bai, bueno... Eh... Kanpoaldean, baina bai, Bilbon.

5 (T1EA1): Eta nola etorri zara ba?

6 (G1EA0): Eh, metroan.

7 (T1EA1): Ah, bale! Es que eguraldi honegaz...

8 (G1EA0): Bai, bai. Baina bueno...

9 (T1EA1): Bueno, zelan (H1)? Zelan etxean?

Atal honetan aztertuko diren hizkuntza-funtzioei dagokionez aldiz, birformulazioak eta laburpenak hartuko dira kontuan (ikus adibideak “2.4.2.2. Hizkuntza-funtzioak” atalean).

2.4.2. Hizkuntza

Irakasle aditu eta ez-adituek erabilitako hiztegi eta perpausetan oinarrituta, badira komunikazio-estrategia egokiak zehazte aldera analizatu daitezkeen zenbait aztergai: ahoskera, erregistroa eta hizkuntza-funtzioak. Hala ere, kasu honetan, elkarrizketetan ematen den ahoskeraren azterketarik ezin izango da egin, irakasleek espresuki eskatuta, elkarrizketen audioak ez baitira publikatuko.

2.4.2.1. Erregistroa

Transkribapenak egiterako orduan, hizlari bakoitzaren hizkera eta euskalkia (baita erdaraz esandakoa, horrelakorik balego) errespetatuko den heinean, hizkuntza aldaera desberdinek komunikazioan oztopoak sor ditzakeen egiaztatuko da. Elkarrizketetan jasotako euskalkiak aztertzeko, aditzak, deklinatutako hitzak eta hiztegia aintzat hartuko dira. Banan-banan, elkarrizketetako aditzak, deklinatutako hitzak eta hiztegia, bizkaieraz edo batuaz dauden zehaztuko da, Euskaltzaindiak zehaztutako hiztegian oinarrituz eta corpusetan hitzak eskuz identifikatuz eta sailkatuz. Aditzen kasuan, bizkaiera bezala ulertuko direnak ondorengoak dira besteak beste: *deutsut, dozu, dau, dot...* Batuaz aldiz, honakoak hartuko dira kontuan adibidez: *dizut, duzu, du, dut...* Aipatzekoa da, batuaz zein bizkaieraz berdin adierazten diren aditzak ez direla kontuan hartuko, adibidez: *dator* eta *gara*. Deklinatutako hitzei dagokionez, *-gaz* (bizkaiera) edo *-kin* (batua) atzizkiekin deklinatutako hitzak zenbatuko dira (*eskuagaz/eskuarekin, neskekaz/neskekin, bategaz/batekin...*). Azkenik, hiztegia aztertzeko, esanahi bera duten baina hizkera bakoitzean era desberdinean adierazten diren hitzen zenbaketa egingo da; esaterako, *be, berba* eta *bardin* hitzak bizkaiera bezala zenbatuko dira, *ere, hitz* eta *berdin* hitzak aldiz, batua bezala.

Azpiatal honen barnean ere, corpus desberdinetan emandako formaltasun maila ikertuko da, solaskideen arteko komunikazio egokirako aproposa den maila zehazteko nahiarekin. Horretarako, elkarrizketa bakoitzean erabilitako agurrei, ofizialtasunari eta egindako epaiei arreta jarriko zaio.

Hona hemen erregistro desberdina duten bi corpus desberdinen hasiera adibide gisa, lehenengoa bizkaieraz dago eta informalagoa da, bigarrena aldiz, batuan dago eta formalagoa da:

1 (T2): Bueno, hasiko naz komentatzen arlo guztiak eta egingo deusut konparaketa bat, aurreko hiruhilabetekoa, honegaz.

2 (G2): Bale.

3 (T2): Bale? A ver, orokorrean, eh... Lehenengo arlo honetan... Autonomia, eta bueno, eta gelako dinamika honetan, ez deko inolako arazorik, eh?

1 (T2EA2): Kaixo! Egun on, **(G2EA0)**!

2 (G2EA0): Egun on, **(T2EA2)**!

3 (T2EA2): Bueno ba... Esatea eh... Bilera gaika antolatu dudala hobeto ulertzeko, eta holan... Eh, gai guztien inguruan hitz egiteko. Bale?

2.4.2.2. Hizkuntza-funtzioak

Irakasle aditu zein ez-adituek birformulazioak, kontzesioak eta laburpen txikiak erabiltzeko duten joera aztertuko da, haien erabilerak sortutako estilo komunikatiboan duten eraginean arreta jarritz. Hona hemen jasotako zenbait adibide:

210 (G3): Bai, es una cochina, es una cochina.

211 (T3): Eta txukuntasuna zaintzea kostatzen jako. **(Birformulazioa)**

75 (T2EA2): Badaki zein dan zaldiak dekon mugimendu hori, baina ez daki praktikara eroaten... Orduan, mugimendua egiterakoan ez du L itxura hori irudikatzen. **(Kontzesioa)**

118 (G2): (Baiezkoa emanez, ahoarekin zarata egin). Claro, nik esaten deusat pues egin behar dauela: “1, 2, 1” edo “1, 2 eta beste aldera”. Baina berak esaten deusta: “Es que **(T2)**(e)k zenbatzen dau 4”. Eta claro ni: “Ez baina nik zenbatzen dot...”. Osea, claro...

119 (T2): Claro, zuk ez dozu zenbatzen bera dagoen lekua, a partir de ahi zenbatzen dozu... **(Laburpena)**

2.4.3. Iraupena eta faseak

Familia eta irakasleen artean burutzen diren elkarrizketetan, iraupenak euren emankortasunean zein eragin duen ikusiko da. Bestetik, beharrezkoa den informazio

guztia elkarbanatzeko ezinbestekoak diren faseak corpusetan ageri diren ikusiko da. Gainera, elkarrizketa mota bakoitzean fase desberdinek hartzen duten garrantzia aztertuko da, irakasle aditu eta ez-adituen joeren artean desberdintasun nabarmenik ematen den antzemateko. Hori guztia lortzeko, lehenik eta behin, elkarrizketa bakoitzean zein fase betetzen diren zehaztuko da. Behin faseak zehaztuta, elkarrizketetan fase bakoitzari emandako garrantzia edo sakontasuna aztertuko da; hots, fase bakoitzean irakasle bakoitzak erabilitako estrategiak zehaztuko dira. Horrela, datu horiek behin jasota, beranduago, elkarrizketa desberdinen arteko konparaketa egin ahal izango da. Jarraian, bi elkarrizketa desberdinen hasierako pasarteak ageri dira: lehenengoan, lehenengo fasea (harrera) eta bigarren fasearen hasiera (entzute aktiboa eta ikertzea) ematen da, bigarren pasartearen aldiz, irakasleak elkarrizketa hirugarren fasearekin (jarraitu beharreko estrategien diseinua) hasten du zuzenean.

1 (T1): Bueno (G1), arratsalde on!

2 (G1): Arratsalde on (T1)!

3 (T1): A ver, bueno, kontatzen deusut apurtxu bat zelan ikusten dot (H1)... Itxaron, eh? Zabalduko dot bigarren hiruhilabetea... (H1)! Zuk zelan ikusten dozu, (G1)?

1 (T2): Bueno, hasiko naz komentatzen arlo guztiak eta egingo deusut konparaketa bat, aurreko hiruhilabetekoa, honegaz.

2.5. Komunikazio-estrategia egokien inbentarioa.

Azken fase honetan, bildutako transkribapenetatik jasotako datu eta ezaugarrien ikerketa eginda, eta bakoitzean erabilitako hizkuntza aldaeran eta hiztegian antzemandako ezaugarriak aztertuta, erabili beharreko komunikazio-estrategia egokien irizpideak zehaztuko dira inbentario batean.

Helburua da sortzea familia-eskola erlazioa hizkuntza aldetik hobetzeko edota komunikazio egokia eragozten duten aspektuei aurre egiteko balizko tresna, ikergai gisa erabilitako corpus desberdinei erreparatuz. Gainera, inbentarioari zentzu gehiago emateko eta bertan jasotako irizpideen adibideak izateko, elkarrizketa ideala sortuko da eredu gisa.

3. Emaitzen analisia eta interpretazioa

Elkarrizketek izan beharreko ezaugarriak (teorian azaldutakoak), ondoren ageri diren tauletan zehazten diren aldagaien arabera aztertu dira jasotako corpusetatik.

Lehenik eta behin, emandako komunikazio-estiloak zehazteko, aldagai desberdinak erabili dira, guztiak asertibitatearen adierazle: interesa adierazteko galderak, birformulazioak, laburpenak eta ezezko erantzunak (ikus 4. taula).

	Adituak			Ez-adituak		
	Elkar.1	Elkar.2	Elkar.3	Elkar.4	Elkar.5	Elkar.6
Interesa adierazteko galderak	10	1	20	9	2	0
Birformulazioak	5	2	7	4	5	2
Laburpenak	1	2	0	1	0	0
Ezezko erantzunak	0	0	0	0	0	0

4. taula. 1.2.1. Estilo komunikatiboa.

Oro har, irakasle adituek entzuketa aktibo eta enpatia nabarmenagoa adierazi dute gurasoekiko, galdera, birformulazio eta laburpen desberdinen bitartez. Birformulazio eta laburpenei dagokionez, ez da bereizketa nabarmenagoa eman irakasle aditu eta ez-adituen artean, nahiz eta adituek gehiago erabili dituzten. Interesa adierazteko galderei erreparatuz, ordea, adituek haien erabilera askoz ugariagoa egin dute ez-adituek baino, 2. elkarrizketako irakasle-adituaren salbuespenarekin, honako honek galdera bakarria egin baitu. Ezezko erantzunak aldiz, ez dira elkarrizketa bakar batean ere eman.

Elkarrizketa guztiak estilo asertiboan burutu arren (inolako gatazka edo jarrera ezkorrik ez baita eman), jasotako datuetan oinarrituz, batzuk besteak baino asertiboagoak direla ikus daiteke. Aldagai guztiak kontuan izanik, irakasle adituen 3. elkarrizketa asertiboena izan da, 1go elkarrizketatik jarraituta, beharbada, irakasle moduan eta gurasoekin harremanak izatean esperientzia gehiago dutelako ez-adituek baino. Ez-adituen kasuan, 4. elkarrizketak asertibitate nabaria adierazi du aldagai desberdinetan, 5. eta 6. elkarrizketak ez bezala, non asertibitatea areagotzeko estrategien erabilpen oso eskasa egin den. Azkenik, aipatzekoa da, nahiz eta ezezko erantzunak ematen jakitea asertibitatearen ezaugarria izan, aztertutako 6 corpusetan ez dela inolako desadostasunik sortu, jazoera hori bera ere asertibitatearen seinale delarik.

Hizkuntzari dagokionez, corpusetan erabiltzen den erregistroan arreta jarrita, euskara hizkuntzaren bi hizkera antzeman daitezke: batua eta bizkaiera (ikus 5. taula). Aspektu honetan, desberdintasun nabarmena ematen da irakasle aditu eta ez-adituen artean. Izan

ere, hiru irakasle adituek erabilitako hizkuntzaren %90a baino gehiago bizkaieran adierazita dago (gainerakoa batua). Irakasle ez-adituen taldearen kasuan ordea, oro har, erabilitako hizkuntzaren %24,13 bizkaiera da eta %75,86 batua; hots, batua gehiago erabiltzen dute. Irakasle ez-adituen kasua, egun euskal gizartean nagusi den joerara hurbiltzen da gehiago; izan ere, lan honen atal teorikoan azaldu den bezala, gaur egungo euskal gizartean, euskara batua da gehien erabilitako hizkera (komunikabideen eragina dela eta besteak beste).

	Adituak			Ez-adituak		
	Elkar.1	Elkar.2	Elkar.3	Elkar.4	Elkar.5	Elkar.6
Aditzak	Bizkaieraz: %99,53 Batuz: %0,46	Bizkaieraz: %93,68 Batuz: %6,31	Bizkaieraz: %98,31 Batuz: %1,68	Bizkaieraz: %40,44 Batuz: %59,55	Bizkaieraz: %17,87 Batuz: %82,32	Bizkaieraz: %7,44 Batuz: %92,55
Deklinatutako hitzak	Bizkaieraz: %88,23 Batuz: %11,76	Bizkaieraz: %96,55 Batuz: %3,44	Bizkaieraz: %100 Batuz: %0	Bizkaieraz: %63,63 Batuz: %36,36	Bizkaieraz: %27,77 Batuz: %72,22	Bizkaieraz: %11,76 Batuz: %88,23
Hiztegia	Bizkaieraz: %83,60 Batuz: %16,39	Bizkaieraz: %70 Batuz: %30	Bizkaieraz: %68,88 Batuz: %31,11	Bizkaieraz: %36,11 Batuz: %63,88	Bizkaieraz: %56 Batuz: %44	Bizkaieraz: %7,5 Batuz: %92,5
Aldagai guztiak kontuan hartuta	Bizkaieraz: %95,59 Batuz: %4,40	Bizkaieraz: %91,16 Batuz: %8,83	Bizkaieraz: %90,80 Batuz: %9,19	Bizkaieraz: %42,85 Batuz: %57,14	Bizkaieraz: %22,76 Batuz: %77,23	Bizkaieraz: %7,94 Batuz: %92,05
	Bizkaieraz: %92,89 / Batuz: %7,10			Bizkaieraz: %24,13 / Batuz: %75,86		

5. taula. 1.2.2.1. Euskalkia.

Aipatutako datuak kontuan harturik, hiru irakasle adituen hizkera bizkaiera hutsean burutzen dela agerizkoa da, nahiz eta kasuren batean, batua gehiago erabili aztertutako aldagaien batean. Esaterako, 3. elkarrizketan, irakasleak erabilitako hiztegia bizkaiera da %68,88an eta batua %31,11n, hots, hizkuntzaren erabilera ez da bizkaiera hutsa aldagai honi dagokionez. Aldagai guztiak kontuan hartuta aldiz (aditzak, deklinatutako hitzak eta hiztegia), erabilitako euskara bizkaiera da %90,80an. Beraz, esan bezala, nahiz eta kasu batzuetan zenbait aldagaietan batuaren erabilpen nabarmenagoa egin, orokorrean, irakasle-adituek bizkaiera hutsean hitz egiten dute. Honen arrazoa, adituen elkarrizketak jasotako ikastetxean bizkaieraz lan egin eta irakasten dela izan daiteke, hots, nahiz eta irakasleren baten berezko euskalkia bizkaiera ez izan, zentroaren izaerara egokituz, bizkaieraz komunikatzen dira hirurak. Aipatutako arrazoi beragatik (irakasleren baten berezko euskalkia bizkaiera ez izatea), zenbait aldagai batuz erabiltzeko joera adierazi dute noizbait.

Irakasle ez-adituek erabilitako hizkerari so eginez, ordea, arestian azaldu den bezala, emaitzek ez dute batua edo bizkaiera hizkera nagusitzat argi zehazten; nahiz eta batuaren erabilera nabarmenagoa izan, bizkaierak ere bere lekua hartzen du (bizkaieraren erabilera %24,13 da eta batuarena %75,86). Ez-aditu bakoitzaren hizkera xehetasun gehiagoz aztertuta, esan daiteke, hiru irakasleetatik bakarrak eutsi diola hizkera bati (batua hutsari); 6. elkarrizketako irakaslea hain zuzen ere, batuan aritu da %92,05ean. Beste bi kasuetan, 4. eta 5. elkarrizketetan, batua erabili dute irakasleek bizkaiera baino gehiago, baina ez diferentzia hain nabarmenarekin: 4. elkarrizketaren %42,85a bizkaieran eta %57,14a batuan burutu da, eta 5. elkarrizketaren %22,76a bizkaieran eta %77,23a batuan. Hortaz, 4. eta 5. elkarrizketetako irakasleek, hizkera nahasia erabiltzen dute (bizkaiera-batua nahasia), batez ere 4. elkarrizketakoak. Hiru irakasle ez-adituen berezko hizkera batua da, horregatik aditz gehienak batuaz esan dituzte. Edonola ere, euskara batuan ikasi eta bizi diren arren, ez-adituak bizkaitarrak dira, hortik justifikatu daiteke hiztegi ugari eta deklinatutako hainbat hitz bizkaieraz adieraztea. Gainera, sasi-gurasoa irakasle ez-adituekiko bizkaiera hutsean zuzentzeak, eragina izan dezake irakasleek haien hizkera moldatzean eta bizkaieraz hitz egiten saiatzean.

Laburbilduz, irakasle ez-adituek hizkera bati eusteko zailtasun handiagoa dutela antzeman daiteke. Elkarrizketa hizkuntza maila formaltzat ulertzen denez, berez, irakasleek ez lukete hizkeren nahasketarik egin behar (nahasketarik ez egiteak mezua era zuzenean eta argiangoan transmititzen laguntzen duelako), edonola ere, aipatutako arrazoiak direla medio, errealitatea bestelakoa da (aztertutako elkarrizketen kasuan).

Hizkeraz gain, hizkuntza aztertzerakoan, formaltasunaren inguruan ere badaude esatekoak (ikus 6. taula).

	Adituak			Ez-adituak		
	Elkar.1	Elkar.2	Elkar.3	Elkar.4	Elkar.5	Elkar.6
Hasierako agurrak	"Arratsalde on!"	EZ.	"Eguerdi on!" "Zelana dana?"	"Egun on, zelan?" "Bilbon bizi zara?" "Eta nola etorri zara ba?"	"Kaixo! Egun on!"	"Kaixo, egun on!"
Bukaerako agurrak	EZ.	EZ.	"Ba bueno, hurrengora arte!" "Bueno..."	"Venga, agur!"	"Eskerrik asko ba!" "Agur!"	"Agur!"
Ofizialtasuna	EZ.	EZ.	EZ.	EZ.	EZ.	EZ.
Epaiak	EZ.	EZ.	EZ.	EZ.	EZ.	EZ.

6. taula. 1.2.2.1. Formaltasuna.

Hasteko, hasierako agurrei erreparatuz, oro har, amultsutasun egokikoak dira. Edonola ere, irakasle adituen 2. elkarrizketan, salbuespena ematen da, ez baita hasierako agurrik egiten. Arestian azaldu den bezala, irakasle aditu eta gurasoak lankideak dira, bien arteko konfiantza dago, beraz, elkarrizketa honetan agurrik ez egotea ulergarria izan daiteke aspektu hori kontuan hartuz. Horrez gain, aipatzekoa da, ez-adituen 4. elkarrizketan, irakasleak gertutasuna era nabarmenean adierazten duela, izan ere, galdera desberdinen bitartez bere interesa azaleratzen du hasierako agurrean ("Egun on, zelan?", "Bilbon bizi zara?", "Eta nola etorri zara ba?").

Bestetik, bukaerako agurrei so eginda, desberdintasuna antzeman daiteke irakasle aditu eta ez-adituen corpusetan. Izan ere, adituetako bi elkarrizketetan ez da bukaerako agurrik ematen (lehen esan bezala, bi hizlariak ezagunak direlako eta konfiantza dutelako haien artean). Ez-adituen elkarrizketetan ordea, hiru kasuetan agurra ematen da. Hala ere, ematen diren agurrak (bai aditu bai ez-adituen kasuan), izaera desberdinekoak dira. Irakasle adituen kasuan ematen den agur bakarrean, 3. elkarrizketakoan ("Ba bueno, hurrengora arte!", "Bueno...") eta ez-adituen 5. elkarrizketakoan ("Eskerrik asko ba!", "Agur!"), gertutasuna eta amultsutasuna ematen da irakaslearen aldetik gurasoekiko. Kontrakoa gertatzen da ez-adituen 3. eta 6. elkarrizketetan, non irakasleek erabilitako agurrak lehorrak dira, hizlarien arteko distantzia areagotzea eragiten dutelarik ("Venga, agur!", "Agur!"). Aipatutako azken jazoera hau, ez-adituen esperientzia ezagatik eman daiteke.

Tonu ofizialaren erabilpenari dagokionez, alde batetik, bildutako 6 corpusetatik, baten ere ez da ikastetxearen edota erakundearen izenean hitz egiten; irakasleek (bai adituek, bai ez-adituek) ikasgelako esperientzietan oinarrituta, haurren ebaluazioa egiten dute,

ofizialtasunera jo gabe. Tonu ofiziala ez erabili arren, irakasleek ez dute ikastetxe edota lankideekiko iritzi ezkorrik edota kritikarik adierazi. Gainera, tonu ofiziala ez erabiltzeagatik, nahiz eta formaltasun maila murriztu, gurasoekiko gertutasuna areagotu da, horrek asertibitatean lagundu duelarik. Beste alde batetik, jasotako taulan, elkarrizketa guztietan, irakasleek gurasoek iraganean izandako jarreraren inguruan epaiak egiten ez dituztela ikus daiteke. Azken aldagai hauei dagokienez, beraz, ez da desberdintasunik ematen aditu eta ez-adituen artean. Epairik ez emateari esker, irakasleek konfiantza transmititu dute, baita konfidentzialtasuna bermatu ere.

	Adituak			Ez-adituak		
	Elkar.1	Elkar.2	Elkar.3	Elkar.4	Elkar.5	Elkar.6
Birformulazioak	5	2	7	4	5	2
Kontzesioak	15	12	10	9	11	7
Laburpenak	1	2	0	1	0	0

7. taula. 1.2.2.3. Hizkuntza-funtzioak.

Hizkuntza-funtzioen erabileran, 7. taulan ikus daitekeen moduan, elkarrizketa guztietan birformulazioen erabilera eman da. Bataz bestekoak behatuta, irakasle adituek, ez-adituek baino erabilera pixka bat handiagoa egiten dutela antzeman daiteke (ziurrenik esperientziak irakatsitakoagatik), edonola ere, ez da diferentzia esanguratsua (irakaslearen arabera, aditu zein ez-aditu, birformulazio kopurua handiagoa edo txikiagoa da). Kontzesioei dagokionez, bai adituek, bai ez-adituek haien erabilpen nabarmena egin dute. Adituek erabilera ugariagoa egin badute ere, ez da hain bereizgarria; irakasle guztiek, familiei arazoak jakinarazteko estrategia hau erabiltzeko gaitasuna erakutsi dute. Azkenik, laburpenak, irakasle adituengatik erabiliagoak izan badira ere, ez-adituek egindako erabilerarekiko diferentzia, nabarmena ez dela ikus daiteke. Oro har, laburpenen erabilera eskasa da, gehien erabilitako corpusean, 2 aldiz erabili baita.

Elkarrizketen iraupen aproposa ordu laurden bat eta bi ordu artekoa dela kontuan izanda, aztertutako corpusetan, ez da iraupen egokia eman bi kasu desberdinetan: 3. eta 6. elkarrizketetan (ikus 8. taula).

Adituak			Ez-adituak		
Elkar.1	Elkar.2	Elkar.3	Elkar.4	Elkar.5	Elkar.6
18:05 minutu.	19:23 minutu.	12:10 minutu.	19:06 minutu.	18:39 minutu.	11:31 minutu.

8. taula. 1.2.3. Iraupena.

Aspektu honi dagokionez, ez dago desberdintasunik aditu eta ez-adituen artean; izan ere, ez-aditu eta sasi-gurasoen artean burututako elkarrizketek bete beharreko baldintza bakarrenetarikoa, abiapuntutzat hartutako irakasle aditu eta gurasoen arteko elkarrizketako antzeko denbora betetzea izan da. Hortaz, 6. elkarrizketak ez du iraupen egokia izan, 3. elkarrizketara egokitu delako. 3. elkarrizketaren iraupen eskasa, justifikatua izan daiteke irakaslea eta gurasoa ezagutzen direla eta egunerokotasunean harremana izaten dutela kontuan hartuta. Gainera, elkarrizketa horretan irakasleak ikaslearen emaitza onak komunikatzen ditu, azaltzeko denbora eskaini beharreko zailtasun nabarmenik adierazten ez delarik.

	Adituak			Ez-adituak		
	Elkar.1	Elkar.2	Elkar.3	Elkar.4	Elkar.5	Elkar.6
Fase 1	Agurtu: "Arratsalde on!".	EZ.	Agurtu: "Eguerdia on!", "Zelana dana?".	Agurtu: "Egun on, zelan?", "Bilbon bizi zara?", "Eta nola etorri zara ba?".	Agurtu: "Kaixo! Egun on!".	Agurtu: "Kaixo, egun on!".
Fase 2	Informazioa jasotzeko galderak eta birformulazioak egin.	EZ.	Informazioa jasotzeko galderak egin.	Informazioa jasotzeko galderak eta birformulazioak egin.	EZ.	EZ.
Fase 3	Beharrezko informazioa azaldu eta konponbidea topatu.	Beharrezko informazioa azaldu eta konponbidea topatu.	Helburua zeharka adierazi, beharrezkoa den informazioa azaldu eta konponbidea topatu.	Beharrezko informazioa azaldu eta konponbidea topatu.	Beharrezko informazioa azaldu eta konponbidea topatu.	Beharrezkoa den informazioa azaldu.
Fase 4	Azken laburpena egin.	Azken laburpena egin eta konpromisoa adierazi.	Azken laburpena egin.	Azken laburpena egin.	Azken laburpena egin eta konpromisoa adierazi.	Azken laburpena egin.
Fase 5	Gurasoak emandako eskerrei erantzun: "Ez horregatik!".	Elkarrizketa amaitu dela argi utzi.	Elkarrizketa amaitu dela argi utzi, zalantzarik dagoen galdetu eta agurtu: "Ba bueno, hurrengora arte!", "Bueno...".	Elkarrizketa amaitu dela argi utzi eta agurtu: "Venga, agur!".	Zalantzarik dagoen galdetu, kontaktuan jarraitzeko asmoa erakutsi eta agurtu: "Eskerrik asko ba!", "Agur!".	Zalantzarik dagoen galdetu, kontaktuan jarraitzeko asmoa erakutsi eta agurtu: "Agur!".

9. taula. 1.2.3. Faseak.

Bukatzeko, elkarrizketa desberdinetan, Abadalejok (2010) zehaztutako faseen burutzea ematen den ikus daiteke 9. taulan. Oro har, jasotako corpusetan, 5 faseak jarraitzen dira hein handi batean, ondorengo salbuespenetan izan ezik: 1go fasea ez da 2. elkarrizketan burutzen eta 2. fasea ez da 2., 5. eta 6. elkarrizketetan burutzen. 2. elkarrizketaren kasuan, irakasle-aditua eta gurasoa lankideak direnez, baliteke lehenengo bi fase horiei garrantzia handiegirik ez ematea, elkar ezagutzen direlako eta egunerokotasunean harremanetan egoten direlako. 5. eta 6. elkarrizketetan aldiz, asertibitatea eta gertutasuna adierazteko estrategiak ez ezagutzeagatik edo erabiltzeko ohitura ez izateagatik, ez da 2. fasea burutu. Gainerakoan, esan bezala, 5 faseak jarraitu dira, nahiz eta corpus bakoitzean, irakasle bakoitzak fase horiek betetzeko estilo desberdinak dituztela agerian utzi (taulan ikus daitekeen moduan).

3.1. Proposamena: komunikazio-estrategia egokien inbentarioa

Jasotako datuetan oinarrituta, elkarrizketetan komunikazio arrakastatsua emateko jarraitu beharreko irizpideak, ez dira osotasunez bete zenbait kasutan. Atal honetan, antzemandako ahulezia nabarmenei aurre egiteko jarraibideak adierazten dira, baita era egokian burututako estrategiak nola indartu ere, aztertutako aldagai desberdinen artean lotura ezarriz. Horretarako, lanean zehar azaldu den bezala, komunikazio-estrategien inbentarioa sortu da.

Inbentarioari zentzua emateko, lehenik eta behin, elkarrizketetarako eredu ona litzatekeen elkarrizketa laburra sortu da (guztiz asmatutako egoera baten ingurukoa). Ondoren, inbentarioan, elkarrizketa ideal horrek dituen ezaugarriak biltzen dira (elkarrizketa guztiek izango beharko lituzketen ezaugarriak). Inbentarioan, alor bakoitzaren azalpenean, testuari erreferentzia egiten zaio, ezaugarri horiek betetzeko adibideak adieraziz. Hona hemen asmatutako elkarrizketa (**T** tutorea da eta **G** aldiz, gurasoa):

1 T: ❶ Arratsalde on, ongi etorri. Zelan zaude?

2 G: Ondo, eskerrik asko.

3 T: Jesarri zaitez, mesedez. (Gurasoa jesarri egiten da). ❷ Nabaritu duzu azkenaldian, Eñaut ez-ohiko jarrera izaten ari dela?

4 G: Bai, aspaldian mimo asko eskatzen ditu etxean, eta mainak egiten ditu etengabe. Orain arte, ez du inoiz jarrera hori erakutsi.

5 T: Orduan, uste duzu Eñaut atentzioa deitu nahian dabilela?

6 G: Bai.

7 T: ③ Bueno, elkarrizketa hau izatea beharrezkoa ikusi dut, esan bezala, Eñautek zenbait jokabide eta portaera bitxiak izan dituelako azkenaldian.

8 G: Ondo da.

9 T: Alde batetik, ikasgelan zeharo despistatuta ikusi dut, arreta oso erraz galtzen du. Gainera, nahiko burumakur egoten da.

10 G: Egia da, bigarren semea izan dugunetik, orain dela bi hilabete, etxean ere jarrera aldatu duela, lehen esan dizudan moduan. Gurekin egon nahi du une oro.

11 T: Bai, ulergarria da anai txikia izan ondoren urduriago egotea, baina uste dut arrazoi horregatik ez diogula dena onartu behar.

12 G: Guk etxean eskatzen duena ematen diogu, umea ez haserretzearren.

13 T: Tira, ez nator bat jokabide horrekin, Eñautek bizi duzuen egoerara egokitzen ikasi behar du pixkanaka.

14 G: Bai, uler dezaket zergatik.

15 T: Eskolan ikusi ahal izan dudanagatik, hemen ere helduen babesa bilatzen du denbora guztian. Jada ez du gelako beste umeekin jolasteko gogorik erakusten. Batzuetan bakarrik jolasten du, baina berehala irakasleren batengana hurbiltzen da eta zuk esan duzun moduan, mainatsu adierazten da.

16 G: Egoerak nahiko arduratuta nauka, badakit ume asko jeloskor azaltzen direla nebarreba txikiren bat izatean, baina ez dut Eñautek bizi dugun egoeragatik sufritzerik nahi. Hala ere, ez dut argi zer egin dezakegun egoera hobetzeko.

17 T: Saiatu Eñautekin denbora gehiago pasatzen, zuen arreta duela uler dezan. Bestetik, anai txikiarentzat egin beharreko gauzetan laguntza eskatu Eñauti, horrela, bera ez da lekuz kanpo sentituko anai txikiari dagozkion zereginetan.

18 G: Ados, kontuan izango dut.

19 T: ④ Guk ere, eskolan, egoerak hobera egiten ez duela ikusten badugu, Eñautek bizi duen egoera kontatuko duen ipuin bat prestatuko dugu ikasgelan kontatzeko. Era horretara, umeen iritzi desberdinak entzungo ditu, eta baliteke bere jokabidea zuzena ez dela ohartzea. Zuek orduan, zer egingo duzue etxean egoera honi aurre egiteko?

20 G: Behar duen arreta eskainiko diogu eta ahal den guztietan, laguntza eskatuko diogu egunerokotasuneko zereginetan.

21 T: Ederto. Argi dugu zer egin dezakegun Eñautek bizi duen jeloskortasun honi erantzuteko. ⑤ Argitu gabeko zalantzarik duzu?

22 G: Ez, dena argi dut. Ea orain egoerak hobera egiten duen.

23 T: Hortaz, elkarrizketa hemen bukatuko dugu, ondo deritzozu?

24 G: Bai, bukatutzat emango dugu.

25 T: Dena dela, hemen izango nauzu edozertarako, kontaktuan jarraituko dugu.

26 G: Konforme, eskerrik asko.

27 T: Zuri, etortzeagatik. Laster ikusiko dugu elkar, hurrengora arte.

Elkarrizketan zehar ageri diren sinboloek eta azpimarraketek, inbentarioan jasotzen diren irizpideei egiten diete erreferentzia. Ageri den asmatutako elkarrizketa honek, familia-guraso arteko elkarrizketetarako komunikazio-estrategia egokiak biltzen ditu, jarraian ikus daitekeen moduan:

IRAKASLEENTZAKO KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIA EGOKIEN INBENTARIOA

KOMUNIKAZIO-ESTILOA

Asertibotasunez jokatzea:

- ✓ Familiarekiko errespetuz zuzentzea.
- ✓ Interesa adieraztea: galderak egitea (ikus [azpimarratutako](#) esaldiak elkarrizketan).
- ✓ Une oro gurasoak entzutea eta enpatia izatea, baita gurasoei horrela dela sentiaraztea ere: birformulazioak eta laburpenak bezalako hizkuntza-funtzioak erabiltzea (ikus [5](#) elkarrizketan).

Arazoak era egokian komunikatzea (baldin eta badaude):

- ✓ Gezurrik ez esatea eta arazoak era zuzenean azaltzea (ikus [7](#) elkarrizketan).
- ✓ Arazoak kontu handiz komunikatzea: kontzesioak erabiltzea (ikus [11](#) elkarrizketan).
- ✓ Desadostasunak sortzekotan, ezezko erantzunak ematen jakitea, errespetuz (ikus [13](#) elkarrizketan).
- ✓ Norberaren emozioak kontrolatzea.

FORMALTASUNA

- ✓ Hizkera finko bati eustea: euskalkiak ez nahastea. Horrela, mezua argiago transmititzeko.
- ✓ Hasierako eta bukaerako agur formulen presentzia bermatzea (ikus hasierako agurra [1](#)-etik [3](#)-ra eta bukaerako agurra [27](#)an).
- ✓ Ofizialtasunez hitz egitea (ikus [19](#) elkarrizketan). Norberaren izenean ere hitz egin daiteke baina zentroa eta bertako lankideak inoiz ez erasoz edo kritikatu.
- ✓ Gurasoen erabakiekiko edota jarrekiko epairik ez egitea.

IRAUPENA

- ✓ Beharrezkoa den informazioa trukatzeko denbora erabiltzea: 15 minutu eta 2 ordu bitartekoa.
- ✓ Aldez aurretik planifikatua.

FASEAK

- 1- Harrera (ikus [1](#) elkarrizketan):
 - ✓ Interesa, errespetua eta erdi-mailako formaltasunezko agurra egitea.
- 2- Entzute aktiboa eta ikertzea (ikus [2](#) elkarrizketan):
 - ✓ Egoeraren informazioa lortzea: galderak egitea.
 - ✓ Entzuketara eta azalpenak ulertu direla ziurtatzea: birformulazio edo laburpen txikiak egitea.
- 3- Jarraitu beharreko estrategien diseinua (ikus [3](#) elkarrizketan):
 - ✓ Elkarrizketaren helburua argi uztea.
 - ✓ Beharrezko informazioa azaltzea.
 - ✓ Egoerarako egokiak diren konponbideak edota proposamenak zehaztea (behar izatekotan).
- 4- Akordioak eta konpromisoak (ikus [4](#) elkarrizketan):
 - ✓ Konponbideak edota proposamenak zehaztu badira, gurasoen konpromisoa bilatzea.
 - ✓ Norberaren eta zentroaren konpromisoa adieraztea.
 - ✓ Elkarrizketan jasotako gaien azken laburpena egitea.
- 5- Agurra (ikus [5](#) elkarrizketan):
 - ✓ Gurasoei zalantzak argitzeko aukera eskaintzea (horrelakorik izatekotan).
 - ✓ Elkarrizketa amaitu dela jakinaraztea.
 - ✓ Etorkizunean kontaktuan mantentzeko aukera eskaintzea.
 - ✓ Errespetua eta erdi-mailako formaltasunezko agurra egitea.

Komunikazio-estiloari dagokionez, inbentarioan, elkarrizketak ahalik eta asertiboenak izateko irizpideak jasotzen dira, asmatutako elkarrizketan ageri diren hainbat adibideri erreferentzia eginez. Adibiderik ez duten irizpide bakarrak honako hauek dira: familiarekiko errespetuz zuzentzea eta norbere emozioak kontrolatzea. Aspektu hauen kasuan, ez da adibide zehatzik aipatu; izan ere, elkarrizketa osoan zehar ikus daiteke irakasleak gurasoarekiko errespetua adierazten duela (hala nola, irakasleak ez du gurasoarekiko jarrera erasokorrik hartzen) eta emozioak kontrolpean dituela (esaterako, irakaslea ez da bere onetik ateratzen edota hitz egindako zerbaitengatik hunkitzen).

Formaltasunaren kasuan, inbentarioan elkarrizketako hainbat esaldiri erreferentzia egiten zaie beste behin. Dena den, hizkera finkoaren froga gisa ez da adibiderik jarri, elkarrizketa osoan zehar euskalki bera mantentzen dela antzeman baitaiteke (euskara batua). Horrez gain, gurasoen erabakiekiko epaien adibideak ez dira zehaztu, honako hau ekidin beharreko jarrera baita, hortaz ez da elkarrizketan jasotzen.

Iraupenaren inguruko irizpideei so eginez, irizpideak ez dira zehatzegiak. Hots, inbentarioan zehazten den moduan, elkarrizketa baten iraupen egokia ordu laurden eta 2 ordu bitartekoa da, kasuaren arabera. Kasu honetan, ez zaio asmatutako elkarrizketari erreferentzia egin; izan ere, asmatutako elkarrizketa zeharo laburra da, lanean eransteko prestatua, elkarrizketa batek izan beharreko ezaugarri guztiak biltzen dituen, baina kasu erreal batera eramanda denbora gehiago iraun beharko lukeena (irakasleak eta gurasoak informazio gehiago elkartrukatzeko).

Azkenik, inbentarioan ageri den faseen atalari erreparatuz, elkarrizketako erreferentziak argi ikus daitezke. Zenbaki bakoitzak, elkarrizketan, zenbaki horri dagokion fasea adierazten du. Elkarrizketako fase bakoitzean gainera, inbentarioan fase bakoitzaren barnean zehazten diren irizpideak betetzen dira.

4. Ondorioak

Azken atal honetan, ikerketa-lana behin burututa, prozesu osoa aintzat hartuz, hainbat ondorio zehaztuko dira.

Lehenik eta behin, lan honen helburu nagusia eta helburu hori lortzeko zehaztutako metodologia bete direla aipatzekoa da. Hau da, komunikazio-estrategia egokien inbentarioa sortu da, eta horretarako, alde zehaztutako prozedura jarraitu da.

Hasteko, 6 elkarrizketa desberdin grabatuz, corpora jaso da. Ondoren, grabaketa horiek hitzez hitz transkribatu dira, transkribapen guztietan irizpide berdinak jarraituz eta era berean anonimizatuz. Jarraian, transkribapen guztiak xehetasun handiz analizatu dira, zehaztutako aztergai desberdinetan arreta jarritz eta euren kontaketa zehatza eginez. Behin datu guztiak bilduta, corpusak konparatu egin dira, irakasle aditu eta ez-adituen joera desberdinak aztertuz. Azkenik, irakasleek gurasoekin burututako batzarretan erabili beharreko komunikazio-gaitasunak inbentario batean bildu dira eta elkarrizketa egokiaren ereduak sortu da.

Gradu Amaierako Lan honetan, burututako ikerketa-lan mota honek irakasle-guraso arteko komunikazioa ezagutzen eta hobetzen zeharo lagun dezakeela agerian geratu da. Izan ere, jasotako corpusen transkribapenari esker, hizketaldien ezaugarriak zehaztasun handiz aztertzeke eta analizatzeko aukera eman da (irakasleek komunikatzerako orduan izandako indarguneak zein ahulguneak antzeman ahal izan dira). Gainera, corpusen bilketa horri esker, hasierako hipotesiak bete diren edo ez ikusi ahal izan da. Kasu honetan, hasierako hipotesia ez da bete, irakasle aditu eta ez-adituen joeren arteko diferentzia ez baita bereizgarria izan.

Azaldutakoaren harira, lan honen emaitzak aintzat hartuta, komunikazio-gaitasunen inguruko formakuntza eskaintzen duten profesionalentzat, honako ikerketak egitea balio handikoa izan daiteke, errealitatean guraso-irakasle artean ematen diren elkarrizketak xehetasun handiz analizatzeko abagunea eskaintzen dutelako. Hots, irakasleei formakuntzak eskaintzeko, lehenik eta behin kasu errealak (elkarrizketa errealak) lan honetako metodologia jarraituz aztertzea, zeharo baliagarria litzateke, hobetu beharreko aspektuak zehazte aldera.

Edonola ere, lan honek, zenbait muga ditu. Alde batetik, Gradu Amaierako Lan hau burutzeko, 6 elkarrizketa jasotzeko aukera emanda, 6 elkarrizketa horietan parte-hartutako irakasleen joeren inguruko emaitzak eta ondorioak atera daitezke. Dena den, lan honetan jasotako emaitzetatik abiatuta ezin da irakasle aditu eta ez-adituen komunikazio-estrategien ondorio orokorrik atera. Hau da, eskoletako irakasleek haien komunikazio-estrategiak hobetzeko asmoz, ikerketa-lan hau martxan jartzekotan, corpus askoz ere ugariagoa bildu beharko litzateke, testuinguru eta ezaugarri desberdinetako partaideekin burututako elkarrizketa ugari biltzea litzake egokiena. Era horretara, emaitza orokorragoak aterako lirakete. Beste alde batetik, etorkizunari begira, lan honetan egindako ikerketa-mota ez da irakasleek egunerokotasunean burutzeko

aproposa; hots, ez da errealista irakasleek haien gaitasun komunikatiboak hobetze aldera lan honetan jarraitutako metodologia une oro burutu behar dutela pentsatzea.

5. Erreferentzia bibliografikoak

- Abadalejo, M. (2010). *Cómo decirlo*. Barcelona: Graó.
- Bolívar, A. (2006): Familia y escuela: dos mundos llamados a trabajar en común. *Revista de Educación*, 339, 119-146.
- Cabrera, M. (2009). La importancia de la colaboración familia-escuela en la educación. *Innovación y experiencias educativas*, 16, 1-9.
- Díaz, J. (2002). Lengua estándar, dialectos y medios de comunicación: el euskera. *Mediatika. Cuadernos de Medios de Comunicación*, 9, 161-183.
- Díez, E.J. & Terrón, E. (2006). Romper las barreras entre la familia y la escuela. Experiencia de investigación-acción en los centros escolares para promover la relación con las familias. *Cultura y educación*, 18 (3-4), 283-294.
- Dominguez (2010). La Educación, cosa de dos: La escuela y la familia. *Temas para la Educación*, 8, 1-15.
- Euskaltzaindia (1998). *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua (EBAZ)*. 2018-04-20an berreskuratua, http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf-tik.
- García-Bacete, F. J. (2003). Las relaciones escuela-familia: un reto educativo. *Infancia y aprendizaje*, 26 (4), 425-437.
- García Bacete, F.J. (2007). Elkarrizketak gurasoekin. *Jakingarriak*, 60/61, 22-29.
- González-Pienda, J.A., y Núñez, J.C. (2005). La implicación de los padres y su incidencia en el rendimiento de los hijos. *Revista de Psicología y Educación*, 1 (1), 115-134.
- Intxausti, M.J. (2014). *La entrevista: construir la relación con las familias (0-6)*. Barcelona: Graó.
- Iruskieta, M. (2015). *Komunikazio Gaitasunen Garapena. Euskara eta Gaztelania. Haur Hezkuntza II*. Irakaslearen apunte argitaratu gabeak.
- Michelena, L. (1981). Lengua común y dialectos vascos. *ASJU*, 15, 289-313.
- Tabera, M.V. (2005). Sobre las entrevistas con las familias en educación infantil. *Aula de Infantil*, 25, 12-15.
- Trillo, A. (1999). Para que funciones una entrevista con padres. *Revista Padres y Maestros*, 241, 34-37.
- Viña, S.G. (1999). Guía mínima para entrevistas erizadas de obstáculos. *Revista Padres y Maestros/Journal of Parents and Teachers*, 241, 38-40.
- Zelaieta, E. (2016). Irakaslegaiak komunikazio-gaitasunean eta diskurtso akademikoetan trebatzeko bidean. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Zuazo, K. (1998). Euskalkiak, gaur. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 30(78), 191-233.